



Kulturgest Bilbao. Ondare Kultural Immateriala: Kudeaketa eta babesa



Kulturgest Bilbao Programaren bigarren edizioa. Bilbon kulturaren kudeaketari buruzko Uda Ikastaroen zikloa da.

Eka. 21 2023

Kod. K03-23

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2023

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 21 2023

Kokalekua

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Hizkuntzak

Gaztelera

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Kultura Ondarearen kontzeptua aldatuz eta zabalduz joan da azken mendean zehar. Monumentala, artistikoa eta historikoa soilik babesteko balio nagusitzat jotzetik, kulturaren ikuskera zabalagoa eta eguneratuagoa zehazten duten beste batzuk ere hartu dira kontuan, hala nola, bizimoduak, gizarte-praktikak, ezagutzak, teknikak eta komunitate bateko gizabanako eta taldeen pentsamoldeak.

2023an, 20 urte dira Kultur Ondare Immateriala Babesteko UNESCOren Konbentzioak ondare hauskor hori kontserbatzeko helburua ezarri zuela, haren bideragarritasuna ziurtatzeko eta garapen jasangarrirako potentziala optimizatzeko. Azken bi hamarkadetan, Kultur Ondare Immateriala oso zabaldua egon da, eta mundu mailan onarpen handia lortu du, munduko herrialde gehienek kultura-politiketan nabarmen txertatu baita, kultura-kudeaketaren eremura mugatzen ez den herri-kontzeptu bihurtuz.

Kultur Ondare Immateriala edo "Ondare bizia" belaunaldiz belaunaldi komunitateek transmititutako praktika, adierazpen, jakintza edo teknikei dagokie. Komunitateei identitate eta jarraipen sentimendua ematen die: sormena eta gizarte-ongizatea bultzatzen ditu, ingurune naturala eta soziala kudeatzen laguntzen du eta diru-sarrerak sortzen ditu.

Kultur Ondare Immaterialaren eremuak:

- Produkzio-jarduerei, prozesuei eta teknikiei buruzko ezagutza tradizionalak
- Sinesmenak, jai-errituak eta beste zeremonia-praktika batzuk
- Ahozko tradizioa eta hizkuntza-berezitasunak
- Antzezpenak, eszenifikazioak, jolasak eta kirol tradizionalak
- Musika- eta soinu-adierazpenak
- Elikatzeko moduak
- Soziabilitate kolektiboko moduak eta erakundeak

Euskal Autonomia Erkidegoa aitzindarietako bat izan zen bere kultura-ondarearen defentsa, aberastea, hedapena eta sustapena bermatuko zuen ordenamendu juridiko bat sortzen, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartuta. Lehenengo arau autonomikoa izan zen kultura-kalifikatiboa erabili zuena bere ondareari erreferentzia egiteko, eta lehena izan zen, halaber, ondasun ez-materialak zuzenean aintzatetsi zituena. 2019an, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea onartu zen. Lege horren bidez, izaera materiagabeko ondasunak behin betiko babestuko ziren, eta, besteak beste, ondasun ez-materialak babestuko ziren, hala nola bertsolaritza, ahozko tradizioak, kirolak, euskal pilota eta Arabako landa-inauteriak.

Uda Ikastaro honetan, Kultura Ondare Immaterialaren kudeaketarekin lotutako hainbat alderdiri buruz hausnartuko da: egungo egoera, funtsezko tresnak, Ondarea mota hau ikertzera, dokumentatzera, babestera eta hedatzera bideratutako programak eta proiektuak, eta Kultur Ondare Immateriala babesten laguntzeko asmoa duten eragile potentzialak, haien adierazpenak lege-esparrutik haratago sustatuz (museo-erakundeak, hezkuntza-erakundeak eta prestakuntza-zentroak, turismo-garapeneko eragileak eta kultura-ondarearen interpretazio-zentroak, komunikabideak).

Horretarako, tartean dauden interes-taldeetako batzuen ordezkariak izango ditugu, gure Kultur Ondare Immateriala ezagutzen, planifikatzen, kontrolatzen eta zabaltzen laguntzen diguten zenbait ekimen eta tresna erakusteko, gure ondare biziaren garrantzia lantzen eta ikusarazten jarraitzeko.

Helburuak

Publikoari Kultura Ondare Immaterialaren eta ondare horretan parte hartzen duten eragile, erakunde eta interes-taldeen ezaugarrietan eta kudeaketa egitura aurkeztea.

Estatuko eta eskualdeko Kultura Ondare Immaterialaren kudeaketaren arloan egun dauden zenbait ekimen eta proiektu ezagutaraztea.

2030eko garapen-helburuekin (genero-berdintasuna, iraunkortasuna, etab.) bat datozen eredu inklusibo eta jasangarri berriak ezartzeko premiari buruz hausnartzea, Kultura Ondare Immaterialaren kudeaketan.

Kultura Ondare Immaterialaren kudeaketan eredu berriak ezartzeko kudeaketaren bideragarritasunari buruzko eztabaida sortzea, UNESCO 2003an izendatu zenetik eta 2019an euskal legea aldatu zenetik igaro diren bi hamarkaden ikuspegitik.




Programa

2023-06-21

09:15 - 09:30	Registro
09:30 - 09:45	Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena: Itziar Alkorta Idiakez UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioko - UIK zuzendari akademikoa Patxi Juaristi Larrinaga UPV/EHU - KulturGest programaren arduraduna Iñaki López de Aguilera Ayuntamiento de Bilbao - Director del Área de Cultura
09:45 - 10:00	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Patxi Juaristi Larrinaga UPV/EHU - KulturGest programaren arduraduna Enara Artetxe Sánchez UPV/EHU Alazne Porcel Ziarsolo UPV/EHU
10:00 - 10:45	“La revolución del Patrimonio Cultural: lo inmaterial” María Ángeles Querol Fernández Catedrática emérita de Prehistoria en la UCM y especialista en la gestión del Patrimonio Cultural
10:45 - 11:15	“Las jornadas europeas del Patrimonio Cultural como medio de gestión, puesta en valor y difusión del Patrimonio Cultural Inmaterial” Alberto Santana Ezkerra Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondare Zerbitzuko burua - Jefe del Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia
11:15 - 11:45	Atsedena
11:45 - 12:15	“Del Atlas del Patrimonio Inmaterial de Andalucía al Laboratorio Abierto del Patrimonio Cultural” Aniceto Delgado Méndez Andaluaziako Ondare Historikoaren Institutua - Instituto Andaluz del Patrimonio Histórico
12:15 - 12:45	“La gestión del Patrimonio Cultural Inmaterial: materializando el imaginario” Beatriz Gallego LABRIT Ondarea - LABRIT Patrimonio
12:45 - 13:30	Mahai ingurua: “Criterios y casuísticas del patrimonio cultural inmaterial protegido y subvencionado en la actualidad - claros y oscuros de su gestión y protección “ Alazne Porcel Ziarsolo UPV/EHU (Moderatzailea) María Ángeles Querol Fernández Catedrática emérita de Prehistoria en la UCM y especialista en la gestión del Patrimonio Cultural Aniceto Delgado Méndez Andaluaziako Ondare Historikoaren Institutua - Instituto Andaluz del Patrimonio Histórico Beatriz Gallego LABRIT Ondarea - LABRIT Patrimonio Alberto Santana Ezkerra Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondare Zerbitzuko burua - Jefe del Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia
13:30 - 13:45	Itxiera Enara Artetxe Sánchez UPV/EHU Alazne Porcel Ziarsolo UPV/EHU

Zuzendaritza



Enara Artetxe Sánchez

UPV/EHU

Arte Ederretan doktorea UPV/EHUn. Gaur egun, EHUKo Pintura Sailari atxikitako irakaslea da, eta Kultura Ondasunen Kontserbazioa eta Zaharberritzea graduan eta Arte Garaikidearen Kontserbazioa eta Erakusmoldeak Unibertsitate Masterrean irakasten du. Bere ikerketa-ildoak obra grafiko, argazki eta pinturaren kontserbazioan oinarritzen dira.



Alazne Porcel Ziarsolo

UPV/EHU

Arte Ederretan lizentziatua eta doktorea (UPV/EHU, 2012) eta Artearen Historian Graduatua (UNED, 2015). Gaur egun, irakasle atxikia da UPV/EHUKo Arte Ederren Fakultateko Pintura Sailean. Bertan Ondare Kulturalen Kontserbazioa eta Zaharberritzeari buruzko graduan eta Arte Garaikidearen Kontserbazio eta Erakusmoldeak (CYXAC) Unibertsitate Masterrean irakasten du. Bere ikerketa lerro nagusiak arte garaikidean eta ehun eta material sintetikoen kontserbazioan oinarritzen dira. Teknologia berrien erabilera ondarearen azterketan eta hedapenerako ere aztergai ditu eta ondarearen eta arteen hezkuntza eta didaktikarekin lotutako proiektuetan ere kolaboratzen du Hezkuntza Fakultateko Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika Saileko irakasleekin

Irakasleak



Aniceto Delgado Méndez

Andaluaziako Ondare Historikoaren Institutua

Aniceto Delgado Méndez es Doctor por la Universidad de Sevilla y Máster Universitario en Arquitectura y Patrimonio Histórico por la misma Universidad. Actualmente trabaja en el Centro de Documentación y Estudios del Instituto Andaluz del Patrimonio Histórico. Miembro del grupo de investigación “Observatorio de Cultura y Patrimonio” de la Universidad de Huelva, estuvo trabajando en la Delegación Provincial de Cultura de Huelva desde el 2001 hasta el 2006. En la actualidad forma parte del Comité de Redacción y Seguimiento del Plan Nacional de Arquitectura Tradicional, elaborado por el Instituto del Patrimonio Cultural de España (IPCE), organismo dependiente del Ministerio de Educación, Cultura y Deportes. También es miembro del Comité Científico de la Revista Traditional Architecture, del Consejo Editorial de la Revista Andaluza de Antropología y del Consejo Asesor y Científico de la Revista de Estudios Etnográficos Etnicex. Junto a las labores desarrolladas en el Centro de Documentación y Estudios del Instituto Andaluz del Patrimonio Histórico, colabora en otras acciones relacionadas con la investigación, la intervención, la comunicación o la formación en patrimonio cultural.



Beatriz Gallego

Labrit

Beatriz Gallego Muñoz. Geografia eta Historian lizentziaduna Euskal Herriko Unibertsitatean, Gizarte eta Kultura Antropologian lizentziaduna UNEDen, eta Genero Diziplina arteko Ikasketen Masterra du Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Esperientzia memoria biltzeko aplikazioak hainbat erakunderentzat egindako ikerketa-beken bidez garatu zuen. 2019ean hasi zen Labrit Ondarearen taldean, eta gaur egun Aholkularitza Arloko arduraduna da. Ahozko memoria eta ondare immateriala bildu, zaindu eta transmititzeko proiektuen diseinuan eta gauzatzean parte hartu du, baita Kultura Ondare Immaterialaren Aurreinbentario eta Inbentario proiektuetan, hainbat lurraldetan.



Patxi Juaristi Larrinaga

UPV/EHU , Doctor en Sociología. Profesor en la Facultad de Ciencias Sociales y de la Información

Patxi Juaristi Larrinaga (Markina-Xemein, 1967) unibertsitateko irakasle titularra da Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Politika eta Administrazio Zientzia Sailean. Soziologian lizentziaduna (1990) eta doktorea (1995) da, eta UPV/EHUko irakaslea, 1993az geroztik. 1998an irakasle bisitaria izan zen Idahoko Unibertsitatean (AEB). 2005etik 2009ra bitarte, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate arloko zuzendaria izan zen. 2011tik 2012ra, Gobernantza eta Politika Ikasketak Masterreko koordinatzailea izan zen, eta, 2015. urteaz geroztik, UPV/EHUko Hizkuntza Politikak eta Plangintza Masterreko idazkari akademikoa da. 2009tik 2017ra UPV/EHUko Gizakiekin egindako Ikerketarako Etika Batzordeko (GIEB) kidea izan da. Halaber, UPV/EHUko Master eta Doktorego Eskolako Kalitate Batzordeko kidea da (2016). Artikulu ugari eta 13 liburu argitaratu ditu euskal kultura, euskaldunen balio, euskara eta, oro har, hizkuntzei buruz. Gerra Zibilarekin eta memoria historikoarekin lotutako gaien gainean ere ikertu eta argitaratu du. Enpresa edo/eta administrazioekin gauzatutako I+Gko 33 kontratutan eta deialdi publikoetan finantzatutako I+Gko 18 proiektutan parte hartu du, eta horietako batzuen zuzendaria izan da.



María Ángeles Querol Fernández

M^a Ángeles Querol Historiaurreko katedraduna izan da UCMko Geografia eta Historia Fakultatean 40 urte baino gehiagoz. Bere ikerketa-ildoak giza jatorrian, arkeologia feministan, arkeologia profesionalean eta kultura-ondarearen KUDEAKETAN oinarritu dira. Azken gai horri buruz eskolak eman ditu 20 urtez, eta Kultura Ondarea Kudeatzeko Eskuliburua (Akal, 2020 bigarren edizioa) bezalako lanak argitaratu ditu. 2015ean, EAAren ondare arkeologikoaren Europako saria jaso zuen; 2019an, Arte Ederretako merezimenduaren urrezko domina; eta, 2022an, kultura-ondasunak kontserbatzeko eta zaharberritzeko sari nazionala. Azken bi horiek Espainiako Gobernuak Kultura eta Kirol Ministerioak eman zituen, Kultura Ondarearen arloan egindako ibilbide profesionala errekonozitzeko.



Alberto Santana Ezkerra

Bizkaiko Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondare Zerbitzuko burua. Bizkaiko Ondare Etnografikoaren arduraduna BFA-BFAn. Historialaria, Artearen Historiako irakaslea Bergara-UNEDen. Euskal Arkitektura tradizionalaren Historian aditua, gaiari buruzko argitalpen espezializatu askoren egilea. Euskal Historia eta Kulturaren dibulgatzaile zientifikoa telebistarako ehunka hitzaldi eta dokumental saiotan (Una Historia de Vasconia; Euskal Herria, Mirada Magica; Ibilbideak Euskal Herriaren alde). Boise State Universityko (AEB) Basque Studies Centerreko zuzendari ohia. Amaiurko Gazteluko Operazio zuzendari ohia, turismo berde eta kulturaleko zentrala Euskal Herrian.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2023-06-21 ARTE
Matrikula doan	0 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2023-06-21 ARTE
Matrikula doan	0 EUR

Kokalekua

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Abandoibarra etorbidea. 48009- Bilbo

Bizkaia